


45. ZENBAKIA. 2020



ELKARRIZKETA | **Vicente Atxa**. Mondragon Unibertsitateko errektorea

**“Ikasleek beraien
konpetentziak osotasunean
garatzeko aukera izan
dezaten konprometitu gara”**



CLINICA BAVIERA

MIOPÍA - HIPERMETROPÍA - ASTIGMATISMO

Demasiados días **mirando tras un cristal**
Di adiós también
al de tus gafas

800€/ojo

1ª Consulta
GRATIS
(Valorada en 60€)

PROMOCIÓN VÁLIDA PARA UNIVERSIDAD DE MONDRAGÓN

BILBAO · Avda. Lehendakari Leizaola, 5
VITORIA-GASTEIZ · C/ Manuel Iradier, 33
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN · C/ Andia, 11

TELÉFONO GRATUITO
900 180 100
clinicabaviera.com

No acumulable a otras ofertas. 1ª consulta gratuita (valorada en 60€) para consultas preoperatorias de corrección visual por láser de miopía, hipermetropía, astigmatismo y presbicia. Desde 740€/ojo (antes 830€/ojo). Dto. de 90€/ojo. Promoción válida hasta el 31/12/2020. NRS CS2046. RPS: 09/16. Más info en www.clinicabaviera.com/promo

Vicente Atxak COVID-19aren krisialdia aztertzen du

2019/2020 ikasturtea berezia izan da Mondragon Unibertsitatearentzat, denbora luze batean ahaztuko ez dena. COVID-19 gaixotasunak eragindako osasun larrialdia dela eta krisi egoera bati aurre egin behar izan zaio. Honi erantzuteko unibertsitateak hartu dituen neurriak azaldu dizkigu Vicente Atxa errektoreak.



AURKIBIDEA

- 03 Editoriala
- 04 Berriak
- 10 Erreportajea
- 13 Iritzia
- 14 Elkarrizketa
- 16 Unibertsitatea & enpresa
- 20 Komunitatea
- 23 Agenda

Nolakoa izango da hurrengo ikasturtea?

Mondragon Unibertsitateak 2019/2020 ikasturtea modu telematikokoan bukatu du, prozedurak egokituz eta orohar koronabirusaren krisialdiari arrakastaz erantzuten. Gauzak horrela, 2020/2021 ikasturtea Covid-19aren mehatxuaren baitan hasiko da, baina era berean presentzialtasuna eta ohiko unibertsitateko egunerokoa berreskuratzea ere espero da. Unibertsitatea ari da ikasgeletarako itzulera prestatzen, baina nolakoa izango da hau? Nola ergingo die ikasle, irakasle edo unibertsitateko beste edozein kolektibori?



Muniversitas aldizkariaren 45. zenbakia EUSKARAZ ikus dezakezu gure webgunean.



Puedes acceder a la revista Muniversitas número 45 en CASTELLANO en nuestra web.

ERREALITATE BERRIARI AURRE EGINEZ

Berrikuntza eta etengabeko berrasmateza Mondragon Unibertsitatearen lerro estrategikoak izan dira beti, eta 2020ko lehen seihilekoan hauek berrindartu behar izan ditu. Koronabirusaren krisiak errealitate global berri bat ekarri du, eta horrek eragin zuzena izan du unibertsitatearen egunerokoa. Ez dira garai errazak izan, baina Mondragon Unibertsitateak aurrera egin du, eta unibertsitateko kolektiboa osatzen duen jendearen ahaleginari esker egin du aurrera.

Horregatik, balio dezatela lerro hauek administrazio eta zerbitzuetako langileei eskerrak emateko, gai izan baitira unibertsitateak normaltasunez funtzionatzen jarrai dezan, horretarako beharrezkoak diren neurriak aplikatuz.

Irakasleei, urteko ikasketa-plana gauzatzeko gai direlako, nahiz eta ikasleekin aurrez aurreko harremanik ez izateak gauzak zaildu dituen. Gainera, hauek ebaluatzen modu egokia garatzeko gai izateak ere badu meritua.

Unibertsitatearen DNA berritzaile eta kooperatiboa funtsezkoa izan da testuinguruari egokitutako irtenbideak aurkitzeko

Ikasleak gai direlako etxe bakoitzean gela txiki bat muntatzeko eta beren proiektuak aurrera eramateko jarrera aktiboa erakusteko. Haren jarrera funtsezkoa izan da prestakuntza telematikoa bideragarri egiteko. Azkenik, ezin dugu ahaztu gure unibertsitateko beste zutabe garrantzitsu bat, ikerkuntza hain zuzen. Gure ikertzaileei ere eskerrak eman behar zaizkie pazienteak izateagatik, itxaroten jakiteagatik eta beraien proiektuak errealitate berrira egokitzeko gai izateagatik.

Ez zen batere erraza gelak, bulegoak, bilera-gelak edo beste guztiak etxe bakoitzeko espazio eta geletara moldatzea, eta are gutxiago guzti hau asteberu batean kudeatzea. Beste behin ere, unibertsitatearen DNA berritzaile eta kooperatiboa funtsezkoa izan da testuinguruari egokitutako irtenbideak aurkitzeko, etengabeko lankidetzako esparru batean eta guztion ongizatea bermatuz.

Mondragon Unibertsitateak ez du denbora luzean ahaztuko 2019/2020 ikasturtea, eta, besteak beste, lankidetzaz itzela ekarri nahi du gogora. Harro gaude honen parte izateaz.

Eskerrik asko!



Segurtasun-distantziak errespetatzen dituen gela..

Neurri berriak hurrengo ikasturtera begira

KORONABIRUSAREN KRISIALDIAK MONDRAGON UNIBERTSITATEA IRAKASKUNTZA-EREDU BERRI BAT GARATU BEHAR IZAN DU, IKASKUNTZA ESPERIENTZIA BERMATZE ALDERA. 2020/2021 IKASTURTEA MODU PRESENTZIALEAN HASI AHAL IZATEKO CAMPUS BAKOITZEKO AZPIEGITURAK HOBETU ETA EGOKITU DIRA.

Mondragon Unibertsitateak MENDEBERRI 2025 hezkuntza ereduaren aldeko apustua indartu du 2020/2021 ikasturtean COVID-19aren krisialdiari aurre egiteko tresna bezala. Ikasturtea modu telematikoan arrakastaz bukatzea lortu ondoren, ikasgeletarako itzulera prestatzeko unea heldu da. Hurrengo ikasturtera begira, aurrez-aurreko formazioa berreskuratzea aurreikusten da, eta horretarako campus bakoitzeko azpiegiturak hobetu eta moldatu dira, osasun-agintariek ezarritako segurtasun-neurri eta protokolo guztiak espazio bakoitzera egokituz.

Horretarako, azpiegitura digitaletan egindako inbertsioa eta irakaslearen formazioa indartzea ezinbestekoa izan da, modu honetan kalitatezko irakaskuntza bermatu eta pertsona bakoitzari egokitutako formazio bat ahalbidetuz. Horrez gain, etorkizunean eman daitezkeen eszenatoki guztiak egokitzeko prest dago unibertsitatea.

Fakultateak prest daude

COVID-19 gaitzari aurre egiteko hartu dituen neurriak campus bakoitzaren ezaugarrietara moldatu dira. Fakultate bakoitzak plan espezifiko bat diseinatu du ikasketa planen aplikagarritasuna bermatzeko, azpimarra berezia jarriz formazio presentzial, praktika, DUAL formazioa eta ikasketa digital aurreratuan. 2020/2021 ikasturteak presentzialtasun, gertutasun eta pertsonalizazioaren esentzia berreskuratuko du, metodologia eta teknologia digitalen gehigarriak garrantzia eskuratuz.

Ikasturte berezi bati begira



Aurtengo ikasturtean telematikoan bukatu ondoren, 2020-2021 ikasturtea du jomuga Mondragon Unibertsitateak. Erakundeen aholkuak jarraituta, presentzialtasuna berreskuratzea ahalbidetuko duten zenbait neurri eta protokolo prestatu ditu unibertsitateak. Hartuko diren neurrien artean, kanpus bakoitzean egoerari dagokion formazioa bat egitea eta azpiegitura digitaletan inbertsioa areagotzea aurreikusten da. 2020-2021 ikasturteak gertutasuna eta ikasketen pertsonalizazioa berreskuratuko ditu, metodologia eta teknologia digitalek aberastuko dutelarik.

Sexu jazarpen kontrako protokoloa jarri du indarrean Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak

PROTOKOLOAREN SORRERAN PARTEN HARTU DUTE FAKULTATEKO IKASLEEK ETA IRAKASLEEK. ONARTUTAKO PROTOKOLOA DA 2018AN ABIAN JARRITAKO PROZESU PARTE-HARTZAILE BATEN EMAITZA.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

| 2018an hasitako prozesu parte-hartzaile baten ondorioz, "Sexu-jazarpenari, generoan oinarritutako jazarpenari eta bestelako indarkeria matxistei aurre egiteko protokoloa" onartu du Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak. Protokoloaren sorreran parte hartu dute Fakultateko ikasleek eta langileek.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak ez du inolako indarkeria motarik onartzen, eta,



SEXU-JAZARPENARI,
SEXUAN/GENEROAN OINARRITUTAKO JAZARPENARI
ETA BESTELAKO INDARKERIA MATXISTEI
AURRE EGITEKO PROTOKOLOA

protokolo honen bidez, konpromisoa hartzen du jazarpen eta indarkeria-jarreraren aurrean beharrezkoak diren neurriak hartzeko; era berean, horren inguruan sor litezkeen kasuak ebazteko eta haien berri emateko konpromisoa ere hartzen du. Modu horretara, eta informazioa, sentsibilizazioa, prestakuntza eta detekzioa baliatuz, indarkeriamota hori prebenituko du, berdintasuneko eta justizia sozialeko gaia baita, zalantzarik gabe.

Protokolo honen bidez, konpromisoa hartzen du jazarpen eta indarkeria-jarreraren aurrean beharrezkoak diren neurriak hartzeko; era berean, horren inguruan sor litezkeen kasuak ebazteko eta haien berri emateko konpromisoa ere hartzen du.

aurrean, giza prestakuntzan eta prestakuntza profesionalean balioak txertatzeko balioko duen espazio bat osatzen eta sortzen duen heinean.

Protokoloak hiru helburu nagusi ditu, batetik, kolektibo osora irekitako prozesu parte-hartzaile eta hezitzailea bultzatzea; bestetik, bermatzea Fakultatea izango dela gune libre eta segurua inolako jazarpen sexistara barik, eta, azkenik, behar diren kasuetan, neurri zuzentzaileak ezartzeko aukera eskaintzea.

Protokoloaren berri eman da Fakultatean eta, gainera, denon eskura jarri da webgunean.

Fakultateak erantzukizun hirukoitza dauka jazarpenaren aurrean: lehenengo eta behin, unibertsitateko komunitatea osatzen duten pertsonekin konpromisoa daukalako; bigarrenik, bere gain dagoelako Fakultatea espazio segurua izateko erantzukizuna etaildo horretan jazarpen mota guztiak prebenitu, detektatu eta haien aurka egin behar dutelako; eta, hirugarrenik, Fakultateak erantzukizuna daukalako gizartearen

Gizarteari begira ikasten

myGADE GRADUKO LEHEN MAILAKO IKASLEAK GIZA ERANTZUKIZUNA LANTZEN DIHARDUTE EKINTZA EZBERDINEN BITARTEZ, IKASITAKOAK EKARPEN SOZIALERA BIDERATUZ.



Proiektua aurkezteko bideoa prestatu dute ikasleek.

Enpresagintza Fakultatea | myGADE graduoko ikasleek (Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Gradu DUALa) sehireko bakoitzean sozialeko ekintzak garatzen dituzte, modu boluntarioan. Helburu nagusia gizarteari ekarpen bat egitea delarik Garapen Iraunkorreko Helburuak edota beraien balore eta interesekin lotuta dauden ekintzak izan ohi dira, gaitegi ezberdineak lantzen dituztenak. Gauzak horrela, COVID-19ak sortutako egoera izan da hizpide nagusia azken sehirekoan burututako ekintzetan. Hauen artean ikusi izan ditugu zaintza taldean parte hartu duten ikasleak (antolatuak edota auzokideenak), hospitaletako gaixoei gutunak idazten aritu izan direnak edota euskera bultzatzeko webgune bat garatu dutenak.

Metodologia propioa garatuz

"Zerbitzu Ikaskuntza" ikasketa prozesua gizarte erantzukizunarekin lotzea ahalbidetzen duen tresna bat da. Honen muina ikasleak 4-5 pertsonetako taldeak sortzean dihardu, beraien inguruan presente dagoen arazo edo erronka bat identifikatu eta honi irtenbide bat ematea. Testuinguru honetan guztiak COVID-19 pandemiak sortutako egoerari erantzuna emateko bideraturiko proiektu ezberdinak eraman dira aurrera. myGADE graduoko arduradunek azpimarratu nahi izan dute ikasleek sormenez egin diotela aurre konfinamendu egoerari, eta hasiera batean muga bat zirudiena gainditu eta beraien proiektuak aurrera eramateko gai izan direla. Horrez gain, ikasleek esperientziak hitz egindakoan, aurrera eramandako ekintzak maila pertsonalean oso aberasgarriak izan direla nabarmendu nahi izan dute.

'Enpresa sortuz' ekimen berria

GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK EKINTZAILTZA INIZIATIBAK GARATZEKO DEIA LUZATU DU HEZIKETA ZIKLO, GRADU EDO MASTERREKO IKASLEEN ARTEAN.



Lehen edizioaren arrakasta ikusita ibilbide oparoa antzematen zaio ekimenari.

Goi Eskola Politeknikoa | 'Enpresa sortuz' ekimena ikasleek eta ikasle ohiek dituzten negozio ideia teknologikoak errealitate bihurtzera animatzeko jarri da martxan. Goi Eskola Politeknikoko gradu zein masterretako ikasle eta ikasle ohiek banaka, binaka edo taldeka garatutako proposamenen artean aukeratutakoak 18.000€ko dirulaguntza jasoko du, datorren ikasturtean zehar ideia berritzaile horretan sakondu ahal izateko. Dirulaguntza hau aukeratutako ideia garatzeko beka bat izango da, edo beharrezkoak diren material edo ekipamendua erosteko, betiere dagokion egiaztagiarekin. Ekintzailea pertsona bakarra den kasuetarako eta laguntzaile baten beharra izanez gero, diru poltsa honetatik Mondragon Goi Eskola Politeknikoko edozein titulazioetako TFG edo TFM ikasleen kolaborazioa eskatu ahal du.

'Enpresa sortuz' lehen edizioaren ebazpena uztailaren 3an izango da eta ekintzailtza aktibitateak urte honetako urrian izango du hasiera. Deialdi honetan 30 pertsona inguruk erakutsi dute beraien proiektua aurrera eramateko beka eskuratzeko interesa, hala nola biomedika, diseinu, informatika,

mekanika eta antolakuntza industrialeko espezializazioetako ikasleak. Ebazpen hau egiterakoan epaimahaiak erabaki dezake sari potoloa osotasunean talde baten ideiar bideratzea, edo pertsona bakarreko bi ideia txiki sustatzea, aurkeztutako proiektuen ezaugarrien arabera erabakiko duelarik. Bestalde, jasotako proposamenek ez badituzte eskatutako oinarri minimoak betetzen saria ez banatzea ere posible izango da.

Eragile ezberdinekin elkarlanean

Proiektuari bultzada emateko lan egiteko espazioa ere bermatuko zaio sustatzaile taldeari, hain zuzen ere Arrasateko GARAIA Parke Teknologikoaren Start-up espazioan. Mondragon Unibertsitateko irakasle eta ikerlariak aholkularitza teknologikoa ere eskainiko diete proiektuaren sustatzaileei, eta Saiolanek negozio ereduaren aholkularitza lagunduko du. Horrez gain, aipatu beharra dago 'Enpresa Sortuz' ekimenaren lehen edizio hau aurrera eraman ahal izateko ezinbestekoa izan dela Fagor Taldearen babesletza bere Gizabidea Fundazioaren bitartez.

Talentua sarean dago

Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea | Basque Culinary Centerrek #RetoCoronavirus jarri du martxan, egunero berritzen den eduki originala eskaini eta ostalaritza zein gastronomia sektoreetako profesionalen partaidetza duen webgune bat. Egungo egoerari aurre egiteko sektoreak beharrezko duen talentua eta ezagutza kohesionatzeko helburuarekin informazioa elkartrukatzeko elkargunea dugu, inspirazio edo inpultso iturri bilakatu nahi dena. Modu honetan, alor ezberdinetako adituek gastronomiaren sektoreko profesionali baliagarria izango zaien informazioa eskaini ahal izatea eta munduan zehar egora berdintsua paitzen diharduten pertsona eta profesionali ahotsa ematea da helburu nagusia.

Berrantolatzen ari den sektorea

Joxe Mari Aizega Basque Culinary Centerreko zuzendariak sektoreak berrantolatzeko beharrezko duela azpimarratu du, prozesu eta eskaintzetan berrikuntzaren alde eginez. Bere ustez, maila honetako larrialdi egoera global batek etorkizuneko dinamiketan eragin nabarmena izango du, beraz ezinbestean berrikuntzaren aldeko apustua indartu behar izango da.



Unibertsitateak pandemiaren aurrean emandako erantzun nagusietako bat.

SEI TITULAZIOK NAZIOARTEKO AITORTZA JASO DUTE

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO LAU GRADU ETA BI MASTERREK NAZIOARTEKO AITORTZA JASO DUTE UNIBASQ ERAKUNDEAK EGINIKO EBALUAZIO BATEAN. SEI TITULAZIO HAUEK JASOTAKO ERREKONozIMENDUAK NAZIOARTEKOTZAREN ALDEKO APUSTUA INDARTZEN DUTE, UNIBERTSITATEAREN ZUTABE GARRANTZITSUENETARIKO BAT DELARIK.



Nazioartekotzeak ate berriak irekitzen dizkie ikasleei.

Mondragon Unibertsitatea | Mondragon Unibertsitatea 4 Gradu eta 2 Master aurkeztu ditu Unibasq erakundeak nazioarteko aitortzarako antolatutako lehen deialdian, guztiek aitortza hau jaso dutelarik. Zehatz-mehatz errekonozimendua jaso duten titulazioak Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza Gradua (LEINN), Industria Antolakuntzako Ingeniaritza Gradua, Haur Hezkuntza Gradua, Lehen Hezkuntza Gradua, Industria Ingeniaritza Unibertsitate Masterra eta Erakundeen Nazioartekotzea Unibertsitate Masterra izan dira.

Aitortza honek Mondragon Unibertsitatea estrategikotzat duen nazioartekotzaren erronkarekin bat dator. Gauzak horrela, gutxienez titulazio

hauetan matrikulaturiko ikasleen %10a atzerrikoak direla edo nazioarteko mugikortasun programaren baten bitartez jasoak direla eta ikasle totalen %20ak bestelako nazioarteko mugikortasun programetan parte hartu behar duela esan nahi du.

DUAL-a indartzen

Nazioarteko aitortzaz gain Robotika eta Kontrol Sistemak eta Datuen Analisia, Zibersegurtasuna eta Hodei Konputazioa Unibertsitate Masterrek DUAL zigilua jaso dute. Unibertsitate Master bi hauekin Mondragon Unibertsitatea DUAL formatuan eskaintzen dituen titulazio kopurua 17koa da.

Startup-etan espezializatutako bizkortzaile bat

'CULINARY ACTION!' BIZKORTZAILEAREN ZAZPIGARREN EDIZIOAK FOOD SEKTOREAN ESPEZIALIZATUTAKO STARTUP-ENTZAKO BIZKORTZE PROGRAMA BAT 100% ONLINE ESKAINTZEN DU.

Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea | Culinary Action!

Basque Culinary Centerrek martxan jarritako ekintzailetza espazioak bere bizkortzailearen zazpigarren edizioa martxan jarri du. Programa honen helburu nagusia startup-ak beraien kontzeptua balioztatzen lagundu eta hauen merkatuko presentzia areagotzea da, horretarako Basque Culinary Center sarea baliatuz. Lehen edizio hau %100 online izango da, eta CA! Bizkortzailea 'Food' sektoreko startup-etan zentratuko da. Berrikuntza maila altua duten proiektu berriak abiarazi, industria osagarriak garatzen lagundu, gizarte eta ingurumen mailako beharrez ezberdinak erantzun (biodibertsitate lokala eta ingurugiroaren jasagarritasuna hobetu, nutrizionalki egingarriak eta sensorialki atseginak) eta hazkunde proiektzioa duen merkatu solidoen aldeko apustua berretsi. Bizkortze prozesu hau produktu berrien alde edo berrikuntza, kalitate zein bereizgarritasun irizpideak jarraitzen dituen startup-etan zentratuko da, erronka nutrizional, jasagarri eta sensorialei erantzunez.

Online banatu ditu sariak Euspot lehiaketak



Lan irabazlearen fotograma bat.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | beherakoek eginiko 24 iragarki jaso dira eta 18 urtetik Maitzaren 28an, online egindako ekitaldian eman ziren gorakoek eginiko 27 spot. jakitera Euspot euskarazko spot lehiaketaren sarituen izenak. Aurtengo edizioa berezia izan da; izan ere COVID-19aren Bederatzigarren edizio honetan, bi lanek, ex equo, lortu dute ondorioz izandako osasun larrialdia dela eta, parte sari nagusia: Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko hartzaileek sormenari eragin behar izan diote eta lan guztiak Komunikazioa graduako 3. mailako Idoia Lahidalgak eta etxe barruan egin behar izan dituzte. Oihane Puertasek aurkeztutako 'Zuk zuretzat sortu' eta 4. Aipatzekoa da Publikoaren sarirako inoiz baino botogehiago mailako Julen Urtzegik egindako 'Ondo pentsatu'. Gainera, jaso direla, 2600 bototik gora. Publikoaren botoei esker, Beñat Mondragon Unibertsitateko ikasleek egindako spotik Abasolo eta Markel Bazanbideren 'Zer dago zuk janzten onenaren saria ere Idoia Lahidalgak eta Oihane Puertasek duzunaren atzean?' izeneko spotak jaso du 500 euroko saria. jaso dute.

Zer dago janzten dugunaren atzean? Idoia Lahidalgak eta Oihane Puertasek Euspot lehiaketako antolatzaileak dira Aretxabaletako Udala, Arteman Komunikazioa, Arizmendi Ikastola eta Mondragon Unibertsitatea.

MTA Hackaton Paneuropea baten izan da

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK KORONABIRUSARI AURRE EGITEKO IRTENBIDE BERRITZAILEAK GARATZEKO HACKATON PANEUROPEA BATEN PARTE HARTU DU MONDRAGON TEAM ACADEMYREN BITARTEZ.




Hackaton #EUvsVirusen irudia.

Enpresagintza Fakultatea | Mondragon Team Academyk unibertsitate partner bezala parte hartu du Europako gizartea, berritzaile, bazkide edota inbertsoreekin konektatzeko balio izan duen hackaton paneuropea baten. Europar Batzordeak #EUvsVirus deituriko ekitaldia antolatu du mundo mailan eta estatu kideen artean burutzen diren akzioen osagarritzat. Bertan, MTAko coach ezberdinak koordinatzaile eta gidari papera hartu dute, MTA komunitateko gainontzeko kideek "problems solvers" bezala parte hartu dutelarik.

Errealitate berriari aurre eginez

#EUvsVirus Hackathonak koronabirusak berehalakotasunez planteatutako erronka ezberdinei aurre egiten dio, Europar Batasuneko merkatu osoan azkar hedatuz. Hauen artean aurkitzen ditugu taldeen produkzio azkarra, produkzio gaitasunen areagotzea edo herrialde batetik besterako ezagutza zein irtenbideen transferentzia. Hori dela eta, ahalik eta efizienteen izateko, epe motzean erantzun beharreko arazoak kategoria ezberdinetan egituratu dira; osasuna eta koronabirusaren biziraupena, negozioaren jarraikortasuna, lan telematikoa eta hezkuntza, kohesio sozial eta politikoa, finantza digitalak eta bestelako erronkei zuzendutako kategoria ireki bat.

Hackaton honek krisialdi garaian Europak elkar babesteko duen gaitasuna agerian uzten du, Batasuneko 27 herrialdeek bertan parte hartu baitute.



Carlos Ruiz doktorea bere tesia online aurkezten.

Doktore Tesiak etxetik

GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK IKASTURTE HONETARAKO AURREIKUSITA ZITUEN DOKTORE TESIEEN EGUTEGIA MANTENDU DU HAUEN DEFENTSA EGOERA BERRIRA EGOKITUZ. PANDEMIAK DOKTOREGAIEEN EGUNEROKOAN AHALIK ETA ERAGIN TXIKIENA IZAN DEZAN TESIEEN DEFENTSA TELEMATIKOA BALIAGARRI EGITEKO EBALUAZIO IRIZPIDE BATERATU BAT JARRAITU DU EPAIMAHAIAK.

Goi Eskola Politeknikoa | 2020-2021 ikasturtean tesiaren defentsa egitea aurreikusten zuten doktoregaiei hau telematikoki egin beharko zutela aipatuz gero, gehiengoak seguruenik ez zuen sinetsiko, baina horrela tokatu zaie defentsa hau martxoaren erdialdetik aurrera programatuta zutenei. Tesi baten gutxienez hiru urtez ikertzen aritu ondoren, nola defendatu hau pantaila baten aurrean?

Koronabirusak formakuntzaren egunerokoan izan duen eraginaren parte bat honako hau dugu, eta honi aurre egiteko Goi Eskolako langileek telematikoki egin diren tesiaren defentsaren kalitatea bermatu ahal izateko baliabideak garatu dituzte. Horrez gain, defentsa ezberdinak baloratzen eratu diren epaimahai guztiek baliagarri izan duten ebaluazio irizpide bateratu bat jarraitu izan dute.

Konfinamentura nola egokitu defentsak?

Telematikoki aurkeztutako lehen tesiaren defentsa martxoaren 17an izan zen, alarma egoeraren ondorioz konfinamendua ezarri eta bi egunera. Carlos Ruiz bere *Modeling for Harmonic Analysis of AC Offshore Wind Power Plants* tesia presentzialki aurkezteko prest zegoen martxoak 15ean alarma

egoera ezarri zenean. Egoera berrira moldatuz Goi Eskola Politeknikoko doktoretza komisioko kideak, epaimahaia eta doktoregaia defentsa telematikoki eta modu egokian aurrera eramateko martxan jarri ziren. Gauzak horrela, Carlos Ruizek hiru urtez Ingeteam enpresarekin kolaborazioan egindako ikerketa etxetik aurkeztu zuen, hamar lagun inguru bildu zuen bideokonferentzia batean, *Sobresaliente* kalifikazioa jasoz.

Lehen tesi defentsa hain denbora gutxian moldatu ondoren, eta konfinamendu egoeraren luzapena aurreikusiz Goi Eskola Politeknikoa hurrengo tesi defentsak ere telematikoki egin ahal izateko prozedura garatu zuen. Modu honetan apirlean beste hiru tesi defenditu ziren; Daniel Maestoren *3D Inspection Methods for Specular or Partially Specular Surfaces*, Mikel Arrindaren *Remaining Useful Life Estimations Applied on the Sizing and the Prognosis of Lithium Ion Battery Energy Storage Systems* eta Ander Domínguezaren *Air-coupled ultrasonic inspection of fiber reinforced composite materials*. Hiru kasu hauetan ere epaimahaiaren balorazioa *Sobresaliente* izan zen, etxetik egindako defentsen kalitatea bermatua geratzen dela konfirmatuz.

Nola moldatuko gara orain jatetxeetan?

BASQUE CULINARY CENTER ETA EURO-TOQUESEK "JATETXEETAKO ZERBITZUEN-TZAKO SEGURTASUNERAKO ETA PREBENTZIORAKO COVID-19 PROTOKOLO BEREZIA" AURKEZTU DUTE, JATETXEEN BERRIREKIERARI AURRE EGITEKO HAINBAT JARRAIBIDE ZEHAZTU ETA BERTAKO LANGILE ZEIN BEZEROEN SEGURTASUNA ETA HIGIENEA BERMATZEKO XEDEAREKIN.



Sektorearentzako erreferentzia izango da Protokolo baliagarri hau.

COVID-19 Protokolo Berezia jatetxeak normaltasunerako itzuleran laguntzeko prestatua dago.

Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea | Basque Culinary Center eta Euro-Toquesek "Jatetxeetako zerbitzuentzako segurtasunerako eta prebentziorako COVID-19 Protokolo Berezia" aurkeztu dute, bezero eta langileen arteko kutsadura arriskuak ahalik eta gehien murriztu daitezzen jatetxeentzako diseinatutako neurri ezberdinak jasotzen dituen dokumentua. Jatetxeen berrirekierari aurre egiteko segurtasuna eta higiena bermatuz, jangelako zein sukaldeko lan prozesu guztiei eragingo dieten neurriak azaltzen dira. COVID-19ak izugarritzako eragina izaten ari da ekonomian, eta osasun eta gizarte mailan, besteak beste, eta ostalaritzako sektorea kaltetuenetako bat izaten ari da. Deseskaladarekin batera negoziak berriz martxan jartzeko eta aktibatzeak aukera dago, eta hau segurtasunez egin ahal izateko higiena eta pertsonen arteko distantzia bermatzea garrantzitsua da. Estandar zorrotzeko protokoloak hainbat jokabide jasotzen ditu alor, jatetxe edo establezimendu bakoitzak bere errealitatera egokitu ahaliko duelarik. Protokoloan zehaztutako neurriek, jatetxeko higiena neurriekin, langileen higiena pertsonalaren neurri orokorrekin, ordainketa sistemekin, esperien-

tzia gastronomikoarekin eta antolakuntza neurriekin zerikusia dute.

Sektoreko eragileak elkarlanean

Protokolo bereziaren aurkezpenean Joxe Mari Aizega (Basque Culinary Centerreko Zuzendaria) Joan Roca (Euro-Toqueseko Zuzendaritza batzordeko kidea) eta Emilio Gallego (Espainiako Ostalaritzako Idazkari Nagusia) izan ziren protagonista. Bertan, Joxe Mari Aizegak nabarmendu zuenez "gure sektorea guztiz berria den egoera konplexu batean murgilduta dago, egunez egun aldatzen diren testuinguruak kudeatzen. Basque Culinary Centerren uste dugu jatetxeen prestakuntza oinarrizkoa dela jarduera berriz ere martxan jartzeko segurtasun berme guztiekin. Horregatik, Euro-Toques-ekin batera landu dugu sektorearentzako erreferentzia izango den Protokolo baliagarri hau.

Onartutako osasun gomendio berriei egokitzen joango den dokumentuak, prestatzea eta hezitzea ahalbidetuko die jatetxei eta interesa duen edozeinentzat eskuragarri egongo da gure webguneetan. Funtsezko une honetan, aktore ezberdinekin batera lan egin behar dugu erronka honi aurre egiteko".

Online irakasteko dekalogoia

KOLABORATEGIKO IKERTZAILEEK KORONABIRUSA DELA ETA ETXETIK ARI DIREN IRASKASLEENTZAKO INSPIRATZAILEA ETA LAGUNGARRIA IZAN DAITEKEEN DEKALOGOIA SORTU DUTE.



Ikasleen online esperientzia aberastu du konfinamenduak.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea

KoLaborategia Gizarte Digitalerako Hezkuntza eta Komunikaziorako laborategiak dekalogo bat sortu du langungarria izan nahi duena online hezkuntza hedatu den itxialdi egoera honetan. Interneten partekatu duten 10 puntuko dokumentuan, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko KoLaborategiak bildu nahi izan ditu, modu xumean, hainbat irodokizun etxetik ari diren irakasleentzat. Hemen, dekalogoia laburtuta:

- 1. Ez beldurtu.** Irakasle gaitua zara eta erronka honi aurre egiteko prest zaude.
- 2. Koordinatu.** Hitz egin inguruko kideekin eta saiatu estrategia bateratuak egiten.
- 3. Birdiseinatu eta moldatu.** Aurrez aurreko molderako diseinatutakoari ahalik eta estuen jarraitu, baina malgutasunez.
- 4. Aukeratu tresna egokiak.** Ez itsutu tresna asko erabiltzearekin.
- 5. Pentsatu komunikazio-ereduan.** Baliatu foroak, grabatutako bideoak, posta elektronikoa, bideo-konferentziak...
- 6. Azaldu dinamikak.** Den prest duzunean, azaldu ikasleei nola egingo duzuen lan.
- 7. Bermatu zure presentzia.** Bideo-konferentziaz gain, beharrezkoak dira talde-tutoretzak, bakar-kako tutoretzak eta lan-saioak.
- 8. Eguneratu beharren arabera.** Ikasleen beharrez gain zureak ere kontuan hartu behar dituzu.
- 9. Eskatu laguntza.** Zorionez, online irakaskuntzan eskarmentua duten profesionalak ditugu gure artean, eskatu laguntza!
- 10. Ebalutu egindakoa.** Ez ahaztu online irakasle gisa egindakoa ebaluatzeaz.

COVID-19

Garai berriak Unibertsitatean

COVID-19 PANDEMIAREN ONDORIOZ BIZI IZANDAKO KONFINAMENDU EGOERAK ERAGIN ZUZENA IZAN DU MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN EGUNEROKOAN. IKASKETA PROZESUAK EGOKITU, IRAKASKUNTZA MOLDATU, IKERKETA PROIEKTUAK AURRERA ERAMAN EDO OHIKO ZERBITZUAK ESKAINI AHAL IZATEA IZAN DIRA BESTEAK BESTE UNIBERTSITATE KOMUNITATEAREN BURUHAUSTEAK.

COVID-19 pandemiak hilabete batzuk lehenago imajina ezina zen egoera bat eragin du mundu osoan zehar. Paradigma sozial, ekonomiko eta akademikoagoitik behera astindu du koronabirusak, pertsonen egunerokoa egun batetik bestera eraldatuz. testuinguru honi aurre egiteko, inguruko gainontzeko erakundeen antzean, Mondragon Unibertsitateak ere neurri bereziak ezarri behar izan ditu. Helburua argi, ahalik eta produktiboen izaten jarraitu baina segurtasun neurri zorrotzei jarraituz, eta horretarako erantzuna, hein handi batean, telematikoa izan da. Osasun larrialditik eratorritako alarma egoera eta konfinamenduak unibertsitatearen jardunean nola eragin duen ahalik eta zehatzen ezagutu ahal izateko, erakunde osatzen duten kolektibo ezberdinen bizipenak jaso ditugu.

Alarma egoerak iraun duen bitartean unibertsitateak aurre egin beharreko erronka garrantzitsuenetarako bat komunitatea konektaturik mantentzea izan da. Hori posible egiteko egokitzapen integral bat burutu izan da unibertsitateko zerbitzuetan, telematikoranzko joera nagusituz. Trantsizio honetan paper erabat aktiboa izan dute Administrazio eta Zerbitzuetako langileek. Besteak beste, batere ohikoa ez den egoera honetan, lan adminis-

tratiboa areagotu egin da. Ikasketa planak egokitu, krisialdiari aurre egiteko dirulaguntzak kudeatu, atzerrian dauden ikasleak atenditu... jardunak ez du etenik izan, eta honi erantzuna ohikoa ez den bezala eman behar izan zaio, era telematikoa nagusiki.

Horrez gain, unibertsitatearen kolektiboaren beharri erantzuteko ohiko zerbitzuak mantentzearen aldeko apustua egin da, kurtsorearen eguneroko erritmoari aurre egiteko baliabideak eskuragarri jarritz. Hauen artean liburutegia dugu adibide garbitzat, webgune bitartez eskainitako erabilera bikoiztuz.



Garai berriak inolako abisurik gabe iritsi dira eta egokitzeko ahalmena izatea ezinbestekoa izan da. Sormena erabili, berrantolatu eta aurrera urratsak egiten jarraitu.

Izan ere, ikasketa esperientzia Mondragon Unibertsitateko bereizgarri nagusietako bat izanik garai honetan ikasleak gertu sentitzea ezinbestekoa izan da. Zentzu honetan, behin konfinamendua ezarriko zegoela, unibertsitateak ikasturtea modu telematikoa bukatzeko erabakia hartu zuen, hain zuzen ere ikasleak lasaitu eta hau praktikara eramateko neurri ezberdinak zehaztuz. Ikasgai edo lan ezberdinak aurrera eramateko metodologia zehatz bat prestatu da, ikasketa planak bete ahal izan eta konpetentzien garapena bermatze aldera.

Erronka ezberdinei erantzunez

Garai berri honek Mondragon Unibertsitatea osatzen duten talde guztiei zuzenean eragin die, eta irakaslegoa ez da aparte geratu. Ikasgaiak aurrera eramane edo ebaluazio tresna zehatzak erabiltzea izan dira besteak beste bidean azaldu diren erronkak, eta hauei aurre egin ahal izateko zenbait kasutan sormen lan garrantzitsua egin behar izan da. Esate baterako, 2020 historian gertatu da Mondragon Unibertsitateko doktoretzetan, orduan defenditu baita lehen aldiz tesi bat modu telematikoa.

Baina tesiak ez dira izan urte sasoi honetan unibertsitatean egon diren ikerketa proiektu bakarrak, eta kontuan izanik ikerketak prozesu jarraituak izan ohi direla bizi izan dugun etenak hauengan influentzia zuzena izan duenik ezin da ukatu.

2019/2020 ikasturtea ez da erraz ahaztuko Mondragon Unibertsitatean. Garai berriak inolako abisurik gabe iritsi dira eta egokitzeko ahalmena izatea ezinbestekoa izan da. Sormena erabili, berrantolatu eta aurrera urratsak egiten jarraitu.



KONFINAMENDUAREN ERAGINAK UNIBERTSITATEAN



IKASKETA PROZESUAK EGOKITU




IRAKASKUNTZA MOLDATU



IKERKETA PROIEKTUAK AURRERA ERAMAN



OHIKO ZERBITZUAK ESKAINI



Obdulia Velez bilera telematikoan.

“Liburutegiko pertsonalak online lanaren kultura barneratuta zuen”

UNIBERTSITATEAREN JARDUNA ERA TELEMATIKOAN POSIBLE IZAN DADIN ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUEN PERTSONALAREN JARDUNA EZINBESTEKOAK IZAN DA. HORIEN ARTEAN DAGO OBDULIA VELEZ, LIBURUTEGIKO LANGILEA.

Nola eragin dio konfinamenduak liburutegiko zerbitzuari?

Liburutegia espazio fisiko zein birtual batek osatzen dute. Liburutegi fisikoek ezin izan dituzte beraien espazioak ireki, eta ondorioz liburutegi birtualaren erabilera asko areagotu da. Zentzu honetan bisita bakoitzeko egonaldia hirutik sei minutura igar da, webguneko mugimenduak bikoiztu (2019ko martxo-maiatz bitartean 35.000 eta 2020ko tarte bakoitzean 75.000) eta kolekzio digitalen erabilera pila bat areagotu da, 22.500 dokumentu deskargatu direlarik tarte honetan

Ohiko zerbitzua eskaini ahal izan duzue? Ez. Espazio fisikoek egunean 1.500 bisita inguru jasotzen dituzte, eta guzti hauek ezin izan ditugu ireki. Horrez gain mailegu fisikoekin mugak izan ditugu (liburuak, portatilak, kamerak...) bereziki mugikortasuna oso mugatua egon denean, mugak leundu ahal joan gara mailegu fisikoak berreskuratzen.

Protokoloren bat jarraitu izan duzue laneko segurtasuna bermatzeko? Unibertsitateak berak garatutako izan dugu jarraibide nagusia. Horrez gain Ministerio, Eusko Jaurilaritza eta REBIUN Unibertsitate Liburutegien Sarearen gomendioak aintzat hartu ditugu.

“**Kolekzio digitalen erabilera pila bat areagotu da, 22.500 dokumentu deskargatu direlarik tarte honetan.**

Prozesuak online egokitu behar izan dira edo horretarako prest zeuden?

Liburutegiko pertsonalak online lanaren kultura barneratuta zuen, normaltasunez erabiltzen baitugu. Liburutegiko lan tresna gehienak web bitartez garatzen dira eta urteak dira hau era koordinatuan burutzen dugula, beraz ohituak gaude online kanala aktibo izatera.

Ikasleen aldetik, zer nolako eskariak jaso izan dituzue?

Orokorrean ohikoak, oso anitzak izaten direnak. Gainera hauek asetzeko zenbait kasutan webguneko informazioa eta laguntza gidak nahikoa izan zaizkie. Aldatu den bakarra erabiltzaile gehiago bideokonferentziaz atenditu ditugula izan da, arreta mahaia erabiltzea ez baitzen posible. Horrez gain entregatutako dokumentuen tipologia ere aldatu da, %95a digitala izatera pasatuz.

“Erreakzionatzeko gai izan gara, egoerak eskatzen zituen neurriak modu egokian aplikatuz.”

DORLETA AGIRIANO myGA DE GRADUKO IRAKASLEA DA ENPRESAGINTZAKO FAKULTATEAN, ETA KONFINAMENDU GARAIAN BERE IRAKASKUNTZA METODOLOGIA ONLINE EREDURA EGOKITU BEHAR IZAN DU.

Nola egin dio aurre irakasleok egoera berri honi?

Egoerak nahiko ezustean harrapatu gaitu irakasleok. Gautik goizera aurrez-aurreko irakaskuntzatik online eredura pasatu ginen, eta horretarako kompetentzia digitalean trebatzea beharrezkoa izan da. Zentzu honetan, Enpresagintzan formakuntza trinkoa jaso genuen, eta honi esker esango nuke erreakzionatzeko gai izan garela, egoerak eskatzen zituen neurriak modu egokian aplikatuz.

Eta ikasketa plana osotasunez aurrera eraman ahal izan duzue?

Ikasleari bere ikaste prozesuaren jabe izateko aukera eskaini diot, inoiz baino gehiago, nik gidari papera hartuz. Horrela, prestatuta neukan programa bete dut, nahiz eta era desberdinean aurrera eraman dudana, baliabide digitalek eskaintzen dizkiguten tresnak baliatuz.

Ikasleen bilakaera berme osoz ebaluatu daiteke online formatuan?

Kompetentzietan oinarritutako ikasketa eredu eta ebaluazio jarraitua izateak ikaslearen bilakaeraren jarraipena egitea ahalbideratzen digu. Zentzu honetan esan dezakegu ebaluatzen erabiltzen ditugun metodologiak aukera ematen digutela ikasleak egindako lana online formatuan ere ebaluatzen.


Zailtasun nagusia zein izan dela esango zenute?

Egun batetik bestera irakaskuntza egoera eszenatoki batetik beste berri batera aldatzea izan da niretzat zailtasun nagusienetakoa. Ez genekien noiz arte luzatu zitekeen egoera, eta honi aurre egiteko pazientzia izatea garrantzitsua izan da, bai ikasle zein irakasleen aldetik.

Online formatuari etorkizunean ibilbiderik ikusten al diozue?

Zalantzarik gabe, online eredu geratzeko etorri da gureru. Orain arte aurrez-aurre planteatzen genuen gradu mailako ikaskuntza-irakaskuntza prozesua, online metodologiekin konbinatuko dira. Irakaskuntza erdi presentziala izan daiteke epe laburren biziko duguna, ikaslea unibertsitate gerturatzearekin batera jardueran edo ikasgai batzuk plataforma digital batean online garatuz.

“**Ez genekien noiz arte luzatu zitekeen egoera, eta honi aurre egiteko pazientzia izatea garrantzitsua izan da.**



Dorleta Agiriano etxetik eskolak prestatzen.

“Uste baino hobeto jarraitu dut unibertsitateko online bidezko erritmoa”

IKASLEEK ERE KORONABIRUSAREN ERAGINA ERA ZUZENEAN JASO IZAN DUTE HILABETE HAUETAN. IKUS-ENTZUNEZKO GRADUA IKASTEN ARI DEN MALEN ILLARRAMENDI DUGU ADIBIDEETAKO BAT.

Ikasketa plana online formatuan jarraitzea zaila izan al da? Egia esan, uste baino hobeto jarraitu dut unibertsitateko online bidezko erritmoa. Aitortu beharra dut hasiera batean nahiko astuna egin zitzaidala interesa eta atentzioa mantentzea ordenagailu baten aurrean egonda, baina egunak pasa ahala ohitzen joan nintzen.

Lan sekuentzien metodologiarekin egiten duzuen lan zuen graduan, eta bertan ikasleok zaretu protagonistak, protagonismo hau mantentzea posible izan duzue? Online bidezko modalitatea jarraitu behar izateak daukan ondorio nabarietako bat ikasleok daukagun protagonismoa galtzea da, eta ulergarria da oso. Irakaslea hizketan dagoen bitartean 50 ikasle mikrofono apiztuta izanetanahi dugunean galderak egitea ez da bideragarria. Hortxe dago aldaketa: ikasleak ezin du nahi beste parte hartu eta jarrera pasiboagoa izan behar du.

Ikaskideekin kontaktua mantentzea posible izan da? Bizi garen teknologia garai honetan elkarren arteko kontaktua mantentzeko ez dago arazorik, beraz whatsapp-a, e-posta edo bideo-deien bitartez kontaktua mantentzea erraza izan da. Ukaezina da aurrez aurreko kontaktua izatea baino lan-tresna hoberik ez dagoela, baina alternatibak eta lan egiteko

modu ezberdinak topatzen ere jakin egin behar da.



Ukaezina da aurrez aurreko kontaktua izatea baino lan-tresna hoberik ez dagoela, baina alternatibak eta lan egiteko modu ezberdinak topatzen ere jakin egin behar da.

Zein da egoera honetatik ateratzen duzun ikasgai nagusia? “Egoera nola, gu ere hala” dio esaldiak, eta ezin hobeto deskribatzen du hilabeteotan nik ateratako ikasbidea. Behar-beharrezkoa da egoera berrietara egokitze gaitasuna izatea, ez dakigulako bihar non eta nola egongo garen, eta datorrena datorrela, aurre egin beharko diogu.

Etorkizunera begira, online ikasketa bideragarri ikusten al duzu? Kasuan kasuko egoera aztertu beharra dago, baina aurrez ondo antolatutako eta garatutako online bidezko ikasketa guztiz bideragarria delakoan nago. Etorkizuna hori dela esango nuke, antolaketa eta metodologia egokia topatzean dago gakoa.

“Koronabirusaren eragina ikerketan proiektu bakoitzaren fasearen arabera izan dela esango nuke.”

NAGORE IPIÑA UNIBERTSITATEKO IKERLARIA DA. KONFINAMENDUAK IKERKETA PROIEKTUEN GARAPENEAN IZAN DUEN ERAGINA AZALDU DIGU.



Online egindako talde bilera.

Nola eragin izan dio konfinamenduak ikerketa proiektu ezberdinei? Konfinamenduak zenbait ikerketa proiektutan eragin zuzena izan du, proiektu bakoitzak diseinu eta denbora propioak dituelarik hainbat kasutan itxialdiak datu jasoketa momentuan harrapatu gaitu. Kasu horietan, diseinuak egokitu eta datuak beste modu batean jaso behar izan ditugu edo egokitzen aurrerago utzi. Bestalde, amaiera fasean genituen hainbat proiektuei dagokionez emaitzak aztertu eta ondorioak ateratzeko tarte gehiago eman digu. Laburbilduz, koronabirusaren eragina ikerketan proiektu bakoitzaren fasearen arabera izan dela esango nuke.

Proiekturik erori al da? Guri dagokigunez, ikerketa proiektu guztiek jarraitu dute aurrera, egokitzen aurreratu eginez behar izan denean, noski. Egoerara egokitu izan behar gara fase edo prozesuak atzeratu edo moldatuz. Bestalde, proiektu finantzatuak kasuan, eten administratiboak egon dira, eta proiektu gehientsuenak epe berrietan garatzeko aukera izango dugu.

Ikerketa proiektuak abiatzerakoan aurreikusitako epeak mantendu izan dira? Orokorrean, datu jasoketa prozesuan zeudenak izan ezik, proiektuak aurreikusitako epeetan amaituko direla uste dugu. Egia da zenbait kasutan proiektu berriak eskatzeko epeak atzeratu egin direla,

beraz hauei dagokionez prestaketarako denbora gehiago izan dugu.

Nola mantendu duzue kontaktua ikertzaileen artean? Nolakoa izan da lan dinamika? Ikertzaileak oso ondo moldatu gara modu birtualean lanean. Baliabide guztiak izan ditugu eskura (datu baseak, software bereziak...) eta beraz, dinamika antzerakoa jarraitu da orohar. Ikerketa talde bakoitzak dinamika propioa du eta hori, orokorrean behintzat, mantendu dela esango nuke.



Aurrez aurre egon gabe ze tresna edo metodologia erabili daitezkeen ikusi ditugu, eta aukera berriak aztertu. Oraindik ikasteko asko dugula jabetu gara.

Etorkizunera baliagarri izan daitezkeen metodologiarekin garatu al duzue? Aurrez aurre egon gabe ze tresna edo metodologia erabili daitezkeen ikusi ditugu, eta aukera berriak aztertu (ikerketa tendentziak identifikatu, sormenaren garrantzia...) Oraindik ikasteko asko dugula jabetu gara.



Malen Illarramendi online ikasketetan.

Ez da azkena izango

Iñigo Ucin. MONDRAGON Korporazioko lehendakaria.



Urte batzuk gainean ditugunoi jada zenbait krisialdi ezagutzea egokitu zaigu, eta orain arte beti irten izan gara Aurrera. Oraingoa hau ere gaindituko dugunaren konbentzimendurekin idazten ditut lerro hauek.

Duela hilabete batzuk dezelerazioak krisialdi batera eramango gintuen ala ez eztabaidatzen zen, Txinan gertaturiko osasun arazo baten berri genuen bitartean, eta handik gutxira denok ikusi genituen Txinatarrak Wuhan hirian ospitale bat ahalik eta azkarren eraikitzen. Ordutik, gautik goizera eta ia konturatu gabe virus berri batek erasotu gaitu, mundu mailako pandemia bilakatu eta jardun ekonomikoa guztiz gelditu. Lehen olatu batean Asiatik zetorren hornitzaileen katea eten zigun, eta beranduago etorri zen funtsezkoak ez diren aktibitateen etenaldiak orain arazoa eskari falta eta honen ondorioetan dugu.

Zenbakiak ikusgarriak dira jada eta oraindik ez dakigu noraino iris daitekeen hondamendia, virusa, honen portaera eta konponbideak oraindik ezezagunak direlako. Honekin elkarbizitzen ohitu beharko gara, betiere arreta jaitsi gabe. Atzera pausoak ekidin behar ditugu, eta bai alor ekonomikoan zein batez ere osasunari dagozkionetan atzeraldiak gerta ez daitezen. Pertsonen bizia dago jokoan, eta guztiaren gainetik bizi izan ditugun egoera apokaliptikoak ekidin behar dira, nahiz eta kasua iristekotan besteak beste osasun langileek jarrera paregabea izango duten jakin.

Krisialdia globala da, baina honen inpaktua desberdina izan da hartutako neurrien eta hauen aplikazioaren denboren arabera, toki guztietan ez baitira baliabide berak egon osasun krisialdiari aurre egiteko. Aurrerago egongo da denbora burututako

ekintzei buruzko hausnarketa bat egin eta gertatutakoaz ikasteko, jasotako kolpe gogorraren ondoren orain jardura estrategikoak identifikatu eta hauek aktibatzeke unea baita. Ikusi dugu honako hau ezin dugula hirugarren pertsonen esku utzi, askotan pertsonen osasunarekin jokatzuz negoziokoak egiteko aukera baliatzen duten oportunistak eta espekulatuzaile bezala ageri zaizkigu eta. Gainera, aktibazio honek bertako industria baten garapena ahalbidetuko du, kalitatezko lanpostuak sortzeaz gain horrelako egoerei aurre egiteko beharrezkoak diren elementuen hornidura bermatuz.

Arazo globalek konponbide globalak behar dituzte, baina Txina eta Estatu Batuek mundu mailako lidergo teknologikoagatik izaten ari diren leia bestelako kapitulu iragarri ezinak ekarriko dizkigu, ziur asko urte luzetan biziko ditugunak.

Arazo globalek konponbide globalak behar dituzte, baina Txina eta Estatu Batuek mundu mailako lidergo teknologikoagatik izaten ari diren leia bestelako kapitulu iragarri ezinak ekarriko dizkigu, ziur asko urte luzetan biziko ditugunak. Beraz, orain Europaren unea da, besteen erabakiengatik baldintzatuta izan beharrean jarrera pasiboa alde batera utzi eta gertatzen denaren ikusle izateri utzita

elkartasunez munduan dagokion tokia eskuratzeko. Horretarako helburu amankomunekin pasio transmitituko duten liderrak behar ditugu, batzutan ulergarria den berekoikeria baztertu eta hobekien kokatuta daudenez ere kaltegarria izango zen haustura bat ekidinez. Iparraldeak Hegoaldea laguntzeko unea da hau, eta oraingoa maileguekin soilik ez da nahikoa izango.

Baina ez Europan bakarrik, gertuago ere politikariak benetan aurrean ditugun arazo larriak erantzun bat eman behar diete, pertsonen arazoei erreparatu eta kontziente izan jendeak asko sufrutuko duela. Horregatik herrialde edo nazio mailako akordioak ezinbestekoak dira, orain bigarren mailan gelditu diran gaiak alde batera utziz. Eta politikaz aparte, guztiok izan behar gara orokorrean guztiok okerrera egin dugula, eta beharrezkoa den esfortzua egiteko prest egon behar gara. Eskariaren berraktibazioa ezinbestekoa da, jardunaren berreskuratzearrekin batera etorkizuneko industria garatzeko ahalmena izanik, I+G, digitalizazioa eta nazioartekotzea oinarri. Industria berri honek itoaldirik gabeko trantsizio ekologiko bat burutu beharko du eta ODS zein kooperazioan oinarria izango

duen enpresa eredu bat garatuko da. Lidergoa, pragmatismoa eta elkarlan ahalik eta handiena beharrezkoa da.

Argi dugu hau ez dela azken krisialdia izango, baina honetatik irtekeko garrantzitsuena aplikatu beharreko neurriak ahalik eta lasterren aplikatzea izango da. Egiten badakigu eta egiten badakite, ez dira arazoak falta.



“Ikasleek beraien konpetentziak osotasunean garatzeko aukera izan dezaten konprometitu gara”

Vicente Atxa
Mondragon Unibertsitateko errektorea

2019-2020 IKASTURTEAK EZOHIKO GARAPENA IZAN DU HEZIKETA SISTEMAN. KORONABIRUSAREN KRISIALDIAK URTE HASIERAN IMAJINA EZINA ZEN EGOERA BAT EKARRI DU, ETA PANDEMIA GARAI HONI AURRE EGINGO DION KALITATEZKO HEZIKETA SISTEMA BAT BERMATZEKO BERRIKUNTZA ETA KONPROMISOA EZINBESTEKOAK IZAN DIRA.

COVID-19 pandemiak eragindako osasun krisialdiak aurrekaririk ez duen erronka bat suposatu du Mondragon Unibertsitatearentzat. Vicente Atxa errektorearekin izan gara koronabirusak unibertsitate kolektiboaren inguruan izan duen eraginaz hausnartzeko.

Nola eragin izan du koronabirusak unibertsitatearen egunerokoan? Argi eta garbi esan behar dugu koronabirusaren eragina nabarmena izan dela.

Ostegun arratsalde baten klaseak modu presentzian ematen ari ginen eta bat-batean hurrengo astelehenean 5.000 ikasle inguruk beraien aktibitatea telematikoki jarraitu behar zuten. Asteburu bat izan genuen irakasle, ikasle eta langileen etxean campus bihurtzeko. Nahiz eta gure gogo hori ez izan eguneroko eta ikasketa esperientzia berri bati aurre egin behar izan genion. Hala ere uste dut egoerak etorkizunean oso baliagarri izango zaizkigun konpetentziak garatzera lagundu digula.

Guzti honek neurri bereziak hartzera behartu zaituzte, zeintzuk dira zure ustez esanguratsuenak?

Esango nuke osasun alarma piztu zenetik unibertsitateak hiru fase gaitzeko bidea egin duela. Lehen fase batean gure ikasleek ikasketa prozesua eredu telematikora egokitzten egin genuen ahalegina, ikasturtearen zati bat birplanifikatu, metodologiak egokitu, TIC-en erabilera integratu, ERASMUS ikasleak lagundu etab. Behin guzti hau bideratuta ikasturtea telematikoki bukatzeko erabaki irmoa hartu genuen, klaseak, metodologia eta ebaluazioak modu honetara egokituz.

Bigarren fasea berrabiatze bezala definituko nuke, eta bertan fokua COVIDak eragina zuzena izan duen ikasle familiarrean jarri dugu. Une honetan ezin dugu onartu krisialdiak inor ere ez atzean uztea, eta horregatik kuoten ordainketetan malgutasuna eskatu duten familia guztiak modu pertsonalizatuan lan egin dugu, beharizan ezberdinak aztertuz. Horrez gain, datorren ikasturtera begira Bekabide programa eraldatu dugu hau eskatu dezaketen familia kopurua areagotuz. 2 milioi euroko poltsa bat prest dugu inor ez dadin Mondragon Unibertsitatean ikasi gabe gelditu koronabirusaren edo bestelako arrazoi ekonomikoren batengatik.

Azkenik, hirugarren fasean 2020-2021 ikasturtea eta hurrengo aurre egiteko estrategia definitu da. Unibertsitatea ikasleek itzulerarako prestatzen ari gara, baina era berean ohartu gara asinkroniak espazio nagusiago bat izan dezakeela, campusetik barne zein kanpo.

“**Presentziantasunak zein telematikoak eskaintzen dituzten balioak maximizatzea gakoa izango da**”



Ikasketa planei dagokionez, aurreikusita zeuden bezala bete ahal izan dira? Nire ustez planifikazioa egoerak eskatzen zuenera egokitzeko gai izan gara, ikasleak konpetentzia gakoak aurreikusita zeuden bezala garatu ahal ditzaten. Argi dago inork ezingo duela esan pandemia honek ez dizkionik hasierako planak aldatu, eta gure kasuan maila guztietan egin ditugu egokitzapenak.

Eta zein tokitan geratu dira ikerketa proiektuak? Hemen nik jarduera bi bereiziko nituzke; ikerketa eta transferentzia. Ikerketari dagokionez jardueraren %100 mantendu dugu, burutu beharreko lanak bizitzen ari ginen unera egokituz.

Enpresekin burututako transferentzia proiektuei dagokionez gehia-

“**2 milioi euroko poltsa bat dugu koronabirusa edo bestelako arrazoi ekonomikoengatik inor gera ez dadin Mondragon Unibertsitatean ikasi gabe**”



go sumatu dugu pandemiaren eragina. Alarma egoerak iraun duen bitartean zenbait enpresek beraien produkzioa eten dute eta horrenbestez zenbait transferentzia proiektu atzeratu edo gelditu egin dira, baten bat behin betiko. Une honetan esango nuke “normaltasun” berri honetan pandemiaren eraginez gelditu diren transferentzia proiektuak berrekiteko moduan gaudela.

Mugikortasunak paper garrantzitsua jokatzen du Mondragon Unibertsitatearen filosofian. Nola konpondu da gai hau? Esango nuke kasu honetan nahiko azkar erantzun dugula, nahiz eta hegazkin edo mugen kaosak ikasle bati baino gehiagori etxerako itzulera zaildu dion. Hasierako gomendioa arrisku guneetan zeuden ikasle guztiak etxera bueltatzea izan zen, eta hortik aurrera gomendio hori kasu guztietara luzatu genuen, pandemiaren hedapenari aurre hartuz. Argi izan dugu ikasle bakoitza etxean baino hobeto ez zela inon egongo. Horrez gain, ez genuen uste bidezkoa zenik horrelako egoera batek jendea atzean uztea, beraz ikasketan atzerrian Aurrera eraman behar zutenen ikasketak plana egokitu dugu arazorik gabe Aurrera eraman dezaten.

Zalantzarik gabe, koronabirusaren krisialdiak unibertsitatearentzat erronka handi bat izan da, Egoera honek zer bait positiboa utzi duela esango zenuke? Argi eta garbi. Letra larriz nabarmendu nahiko nuke Mondragon Unibertsitatean osatzen duten pertsona guztiak erakutsi duten konpromisoa. Fami-

liek beraien etxeak ikasgela bihurtzeko ahalegina egin dute, unibertsitateko langileek asteburuak lanean eman dituzte egoera berri honetara egokitzeko... komunitate guztiaren esfortzua itzela izan da. Horrez gain DUAL formazioa bezalako proiektuetan gurekin batera lanean diharduten enpresen konpromisoa ere nabarmendu nahiko nuke, ikasle formazio bai lantegian bertan edo telematikoki Aurrera eramateko egin duten ahaleginagatik.

Azkenik, era espezifikoan unibertsitatean zentratuz, fakultate guztietan elkarlan proiektuak Aurrera eraman dira. Uste dut egunotan gure unibertsitatearen inguruan denok emozionatu gaituzten kontakizunak entzun ditugula; Goi Eskola Politeknikoko eta Enpresagintzako irakasleak babes tresnak era boluntarioan garatzen, Basque Culinary Centerrek Aurrera eramandako Reto Coronavirus ekintza, Humanitate eta Gizarte Zientzien Fakultatean formazio telematikoko laguntza irekia eskainiz, osasun zerbitzuetako langileak gure goituzan lo egiten...

Pertsona eta belaunaldi handiak beraien onena ematera behartuta dauden uneetan gorpuzten direla esan ohi da. Bada, ni guztiz konbentziturik nago egoera honetan gaitutako zailtasun guztiak mundua beste era baten begiratu duen gizarte eta unibertsitate bat ekarriko duela, solidario eta kooperatiboagoa. Guzti honek hau gaitutako dugunaren sinesmenena indartzen dit, eta etorkizunean unibertsitate indartsuago bat izango garela uste dut. Krisialdi honetan balore kooperatiboak indartuta irten direla esango nuke.

Bezeroentzako erantzun berriak

BUSINESS DATA ANALYTICS GRADUKO IKASLEAK EROSKI BIDAIEK AURKEZTUTAKO ERRONKA BATI ERANTZUNA EMATEKO LANEAN ARITU DIRA. PROIEKTUAREN HELBURUA BEZEROEN DATU ANONIMOAK AZTERTUZ EROSKETA IRADOKIZUNAK EGITEKO PROZEDURAK GARATZEA DA.

Enpresagintza Fakultatea | Zortziastetan zehar Mondragon Unibertsitateko Business Data Analytics graduako lehen mailako ikasleak Eroski Bidaietako Mikel Goienetxe (Zuzendari Orokorra) eta Iñigo Laisekak (Negozio Garapen eta Eraldaketarako Arduraduna) aurkeztutako erronkari aurre egiten lanean aritu dira. Erronka honek Eroski Bidaien bezeroen adimenaren hobekuntzan datza, bezero hauei bidaia proposamen automatikoak eskaini ahal izateko.



Online lankidetzak proiektuak garatzeko balio du.

Horretarako, ikasleek aste hauetan zehar bezeroen datu anonimoak aztertu behar izan dituzte, hauen erosketa joera aztertu eta honen baitan erabil-tzaile bakoitzari egokitutako bidaia proposamen erakargarriak aurkeztu ahal izateko. Modu honetan bezeroen segmentazio bat egitea posible izan-go da, erakundearen zerbitzuak optimizatuz.

Talde lanean osatzen diren erronkak

Talde bakoitzak irakasleen babesa izan du, “project manager” papera hartu dutelarik. Gainera, Eroski Bidaien ordezkariak ere modu aktiboan hartu dute parte, prozesuan zehar sortzen joan diren zalantzak argitze aldera, erronka ezberdinak erantzun ahal izateko babesa eskainiz. Asteetan zehar, talde ezberdinek “Project manager” bakoitzarekin bilera ezberdinak izan dituzte proiektuaren jarraipena egin eta zalantza guztiak aurrera eramateko. Era berean, graduaren materia ezberdinetan aurreratu ahala proiektuari aurre egiteko kompetentziak barneratzen joan dira ikasleak. Gainera, aipatzekoa da zenbait taldek Scrum metodologia erabili dutela proiektua era egokian kudeatzeko eta adostutako entrega dataren barruan bezeroak eskakizuna jaso dezan.

Erronkak izaeraz duen zailtasunaz gain, COVID-19ak eragindako konfinamendu egoera ere kontuan hartzekoa izan da, “project manager”en jarraipena eta talde lana online egin eta unibertsitate materia era berean eman delarik. Egoera honetan proiektuaren barne egon diren kolektibo ezberdinen moldagarritasuna agerian utzi du, irakasle, bezero eta batez ere ikasleen inplikazioa azpimarratzekoa izan baita proiektuak eskatzen duen tentsioa mantendu ahal izateko.

3D teknologia osasuna eta gizartearen zerbitzura

UNIBERTSITATEKO LANGILE BOLONDRESEK 4400 BABES BISERA EKOIZTU DITUZTE OSASUN ARLOKO PROFESIONALENTZAT COVID-19AK ERAGINDAKO OSASUN-BALIABIDE GABEZIARI AURRE EGINEZ

Goi Eskola Politeknikoa | Mondragon Unibertsitateko 15 langile inguruk boluntario-talde ezberdinek abian jarritako lankidetzak-ekimenarekin bat egin dute COVID-19aren krisian egon den osasun-baliabideen gabeziari aurre eginez. Unibertsitateko langileek 3D teknologian duten jakintza osasun-materiala ekoizteko baliatu dute eta campus desberdinetako laborategietan dituzten inpresorak martxan jarri dituzte.

Gizartearen ongizatea helburu

Hasiera baten bolondres talde honek garatutakoa osasun langileentzat bideratu zen, eta hauen beharrak asetzeko zerbitzuetako langileek ere jaso zuten ekoiztutako materiala (merkatari txikiak, postariak, autobus gidariak...). Fabrikazio gehigarriko makinak bitartez garatutako materiala kobratu gabe eman da, gastuak Goi Eskola Politeknikoak bere gain hartu



Babes bisera produkzio fasean.

dituelarik. Beharrak asetzeko bermea eskainiko dituzten pieza zehatzak egiteko ezinbestekoa izan da unibertsitateko ikerlariak azken urteetan fabrikazio gehigarriaren teknologian sakondu duten ezagutza, unibertsitateak ekipamendu zientifikoan egindako inbertsioaz gain.

Bosgarren CIRP kongresua e-conference bat izan zen

Goi Eskola Politeknikoan | 5th Conference on Surface Integrity ekitaldia ekainaren 1a eta 5a bitartean egin zen e-conference batean berrantolatu zuen. Astebetez aurretiaz izen emandako pertsonak plataforma birtual batera sartzeko aukera izan zuten, bertan video formatuan garatutako 100 hitzaldi baino gehiago ikusteko aukera izan zutelarik, guztiak nazioarteko ikertzaile garrantzitsuek burutuak.

2020. urtean kongresuaren antolaketa Mondragon Unibertsitateari zegokion, beraz 2019an martxan jarritako antolakuntza lanak egoera berria egokitu behar izan ziren, modalitate birtual batean aurrera eramanez.

Nazioarteko ikerketak garrantzia hartuz

CIRP on Surface Integrity ekitaldiaren bosgarren edizioaren helburu nagusia gainazaleko osotasunarekin zerikusia duen ikerketaren azken aurrerapausoak aurkeztu eta honi buruz hausnartzea izan da. Ingeniaritzako ikerkuntza mundu mailako liderra den erakundeak 50 herrialdeetan zehar banaturik dauden 600 ikerlari baino gehiago ditu, eta hazkunde ekonomiko globalarengan eragiteko ikerkuntza sustatzea du helburu nagusizat, betiere gizartearen ongizatearen alde lanean arituz.



CIRP biltzarra ezin izan da aurrez aurre egin.

Langileetan, pertsona kooperatiboaren profila neurtzeko eskala argitaratu dute

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO ION LEZETA, OXEL AZKARATE-ITURBE ETA JOSE RAMON VITORIA ETA EHU-KO AITOR ARITZETA IKERTZAILEEK SINATU DUTE 'KOOPHEZI-L: PERTSONA KOOPERATIBOAREN PROFILA LANGILEETAN NEURTZEKO ESKALA' IKERKETA.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Behin, 2019an, *Koophezi-L: Pertsona Kooperatiboaren Profila Gazteetan* (16-22 urte bitartekoak) neurtzeko eskala argitaratu eta gero, oraingoan, langileen arlora ekarri dute profil kooperatiboaren azterketa Mondragon Unibertsitateko Ion Lezeta, Oxel Azkarate-Iturbe eta Jose Ramon Vitoria eta EHUko Aitor Aritzeta ikertzaileek. Hala, ikertzaile taldeak kaleratu berri du *Koophezi-L: Pertsona kooperatiboaren profila langileetan neurtzeko eskala* azterlana.

Ikertzaileen esanetan, "ezagutzaren gizartearen testuinguruan, kapital ukiezinaren garrantzia gero eta estrategikoa ari da bilakatzen. Paradigma horren barnean aurkitzen diren enpresak sustatu beharko ditu herritar orok behar lituzkeen giza gaitasunak, esaterako: parte-hartzea, ekimena, talde lana, sormena, autoestimua, arazoitzeko gaitasuna, interdependentzia, erantzukizuna eta balore sozialak. Proiektu honen helburua da ezaugarri horiek guztiak batzen dituen langileriaren profil bat garatzea. Profil horri deitu diogu langileriaren profil kooperatiboa".



Liburu batean jaso dute Koophezi-L ikerketa.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Enpresetan pertsonen talentua eta ikaskuntza sustatzeko programari esker argitaratu da Koophezi-L ikerketa

myGADE-DUAL graduaren enplegarritasuna



myGADE DUAL gradua hiru campusetan ematen da.

Enpresagintza Fakultatea | Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza Graduaren (myGADE-DUAL) enplegarritasun maila altua CyD Rankingatik aitortua izan da, talde lanean oinarritutako etorkizun profesional batean graduak duen ikuspegia indarturik geratu delarik. myGADE-DUAL graduak pentsamendu kritikoaren garapena eta analisisirako gaitasuna garatzeaz gain, sormena, harreman interpersonalak eta egoera zailen kudeaketan ere jartzen du fokua. Guzti honi myGADE-DUAL graduak irauten duen lau urteetan zehar ikasleak enpresa baten jardunean piltzen duen lau urteko esperientzia profesionala gehitu behar zaio. Modu honetan ikaslea era zuzenean lan munduko etorkizunerako

prestatzen da. Metodologia honi esker enplegarritasun indizea hasi egin da eta myGADE gradua burututako profesionalak gaur egun bertako zein nazioarteko industria eta zerbitzuen sektoreko enpresetan zuzendaritza eta gestio lanak burutzen dihardute (kontu-ikuskaritza, aholkularitza, finantzak, kontsumoa...).

CyD Rankingak graduaren ezaugarri guzti hauek aintzat hartzen ditu, eta horrez gain Mondragon Unibertsitatea estatu mailan errendimendu goreneko adierazgarri gehienak biltzen dituen 15 unibertsitateetako bat bezala kontsideratzen du (rankinga osatzen duten 75 unibertsitateen artean 11. Tokian ageri da).

Profesionalei zuzendutako webinar eskaintza

MAIATZA ETA EKAINA BITARTEAN, PROFESIONALEI ZUZENDUTAKO 24 WEBINARRETIK GORA ESKAINI DITU, IREKIAN, HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAK.



Profesionalei zuzendutako webinarrek eskaini dira.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Hezkuntza, kooperatibismo eta herrigintza arloetako profesionalak hainbat webinar ikusteko aukera izan dute maiatz eta ekainean. Izan ere, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak 24 webinar eskaini ditu, irekian, hezkuntza-eraldaketa, politikaren etorkizuna edo kooperatibismo gaiak ardatz hartuta. Webinarretan hizlari egon dira Fakultateko zein kanpoko aditu ugari.

Hezkuntza arloko webinarak

Hezkuntzarekin lotutako webinarretan, hitzaldiak eskaini dituzte Fakultateko hurrengo ikertzaileek: Siras Santa Cruz, Eugenio Astigarraga, Nagore Ipiña, Agurtzane Martinez, Itziar Garcia, Amelia Barquin, Eneritz Garro, Karmele Perez, Mikel Etxaburu, Beñat Flores, Ana Carpintero, Nerea Alzola eta Nerea Lopez. Gainera, kanpotik etorritako adituen artean egon dira Xavier Carrera, Neus Sanmartí, Xavier Aragay eta Nerea Urcola. Lantutako gaiak, oster, askotarikoak izan dira, esaterako, hezkuntza berrikuntza, portfolien erabilera, erraztaile rol berria, ebaluazioa eta STEAM hezkuntza. Gainera, sorta honetan tokia izan

dute erresilentzia, lan kolaboratiboa eta barnekotasunarekin lotutako hitzaldiek.

Kooperatibismoa eta ekonomia sozialen webinarak

Kooperatibismoa eta ekonomia sozialen buetan egindako webinarrei dagokionez, gaia ardaztu da Covid-19ak sortuta krisi egoeran. Parte-hartzaileen artean egon dira, beste batzuen artean, Lagun-Aro, Fagor taldea, Eroski, La Ciudad Invisible-XES, Mondragoneko Gestio Soziala, Olatukoop, COCETA eta Konfekoop-eko ordezkariak.

Politikaren etorkizuna aztergai

Gainera, politikaren etorkizunari buruzko webinar sorta ere antolatu du Fakultateko Herrigintzaren Berrikuntzan Egitasmoak. Hizlarien artean egon dira hurrengo adituak: Pello Otxandiano, Xabier Barandiaran, José Maria Lassalle, Joan Subirats, Javier Larrañaga eta Mikel Aramendi.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak antolatutako webinarrek oso harrera ona izan dute eta ehunka lagunek hartu dute parte.

EMBRYO proiektua: DBHko ikasleak manufakturara hurbiltzen

Goi Eskola Politeknikoa | Goi Eskola Politeknikoa lidertzen duen proiektu honen helburua gazteek manufakturararekiko duten ikuspegi zikina eraldatzea du helburu, eta horrez gain STEAM (Science, Technology, Engineering, Art & Maths) gaitegia ere Euskadiko gazteen artean bultzatu nahi du, bereziki emakumeengan fokua jarritz. EMBRYO EIT Manufacturing-ek bultzatzen duen Europa mailako plataforma bat da, 17 herrialde ezberdinetako 50 eragile elkartzen dituena, MONDRAGON Korporazioa besteak beste, eta Arduino AG eta PtU Darmstadt Institutu Teknologiko Alemaniara bezalako kolaboratzaile europarrak elkartzen dituena.

Ekimenaren ardatz nagusietako bat gazteak manufakturararen mundura hurbiltzea da, Ikastolen Elkartearen laguntzarekin. Proiektuaren lehen fase honetan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikertzaileak Orio Herri Ikastola eta Santurtzi Bihotz Gaztea Ikastolako Bigarren Hezkuntzako ikasle eta irakasleekin elkarlanean arida. Lehen proba pilotuaren arrakasta ikusita

beste lau ikastola gehiago gehitu dira ekimenera, paraleloan Euskadi eta Alemanian garatzen ari dena, bertan ere sei heziketa zentro manufaktura ikasle gazteen artean bultzatzen ari direlarik.

Programazio eta fabrikazio prozesuei buruz ikasten

Proiektuaren helburua ikasle goak programazio, sentsorizazio eta fabrikazio prozesuei buruz ikastea da, eta horretarako zentro ezberdinetako irakasle goak programazioari buruzko bost saio eman ditu Arduinoren bitartez, horretarako enpresak aurretiaz formatu ditularik.

Behin hau eginda, Mondragon Unibertsitateko irakasleek fabrikazio prozesuei buruzko beste hiru saio eskaini dituzte, hauetariko bat unibertsitateak duen materialak konformatzeko laborategitik emanez.


Proiektuaren lehen fasean, unibertsitateko irakasleek maketa bat egin zuten ikasgeletan tresna didaktiko gisa erabiltzeko, eta ikasleek maketa horren funtzionamendua barneratu ahal izan dute.



Modu telematikoan egindako laborategiko prestakuntza-saio bat.

Kooperatiba digital berriak

MONDRAGON UNIBERTSITATEA, NEW YORKEKO THE NEW SCHOOL ETA MONDRAGON KORPORAZIOAK PLATFORM COOPS NOW ABIARAZTEKO AKROFIOA SINATU DUTE, MUNDU MAILAKO KOOPERATIBAK SORTU ETA SUSTATZEKO HELBURUA DUEN PLATAFORMA.



Bilera telematikoak ezinbestekoak dira kooperatiba digitaletan.

Enpresagintza Fakultatea | NEW SCHOOL-en “Institute for the Cooperative Digital Economy” eta Mondragon Unibertsitateko Mondragon Team Academy sareak Platform Coops NOW programa sortu dute, MONDRAGON Korporazioaren babesarekin. Ekintzailtza programa hau ekainaren 1^a eta uztailaren 24a bitartean izan da, eta maila kooperatiboan erreferente bilakatzeko helburuarekin sortu da. Langabezia dauden pertsonak helburu izanik, hauek bereziki zerbitzuen sektorean txertatu eta nazioarteko komunitateko ekintzaileak erakarri nahi izan ditu.

Eskari honi erantzuna emateko New Yorkeko “The New School” unibertsitateko Ekonomia Digital Kooperatiboko Institutua, Mondragon Team Academy (Mondragon Unibertsitateko nazioarteko ekintzailtza sarea) eta MONDRAGON Korporazioarekin batera formaziorako aliantza bat sinatu du, kooperatibismo digitala mundu mailan sustatu eta plataforma digitalen bitartez kooperatiben

ekintzailtza bultzatzeko. Proiektuaren ideia nagusia interkooperazio espazio berriak sortuz lanbide aukera duinak eskaini ahal izatea eta mundu mailako langabeziari aurre egitea da, batez ere pandemiak gogorren astindutako eremuetan. Akordioa konfinamendu garaian lortu da COVID-19ak eragindako giza krisialdi zein krisialdi ekonomikoari aurre egiteko.

Hasiera arrakastatsua

Izen emandakoen kopuruaz gain, programak interes handia sortu du kolektibo profesionalaren artean, 1.000 pertsona inguru informazio bila hurbildu direlarik, eta hauetatik 46 herrialde ezberdinetako 400 pertsona baino gehiagok izen eman dutelarik. Hori dela eta, antolakuntza formazio honen bigarren saio bat urrian ematea baloratzen ari da, eta asmoa honen kudeaketa Mondragon Unibertsitateko Enpresagintzako Fakultatearen eskuetan geratzea, lehen edizio hau New Yorketik kudeatu baita.

Elikagaien industriaren balio katea

BCC INNOVATION-EK BESTELAKO ENPRESA ORDEZKARIEKIN BATERA MAHAINGURU BAT ANTOLATU DU ELIKAGAIEN INDUSTRIAREN BERRIKUNTZA AZTERTU ETA HONEN BALIO KATEA ERALDATU AHAL IZATEKO.

Basque Culinary Center - Gastronomía Zientzien Fakultatea

Basque Culinary Centerreko Gastronomiaren Teknologia Zentroa den BCC Innovationek online mahai-inguru bat antolatu zuen joan den maiatzaren 14an, elikagaien sektoreko enpresa garrantzitsu ezberdinetako ordezkariekin batera elikagaien industria balio katea eraldatzeko nola ari den berritzen hausnartzeko asmoarekin. Webinarraren protagonistak Guillermo Arrieta (Mahou San Miguel taldearen Komertzial Garapenerako eta Bezero Marketing Zuzendaria), Maite Bazán (Martikoren Esportazio eta Marketing Zuzendaria) Enrique Monzonis (Eroskiren Berrikuntza eta Eraldaketa Zuzendaria), Rafael Guerrero (COVAPeko Zuzendari Komertziala) eta Francisco Javier Sánchez (Onnera Group Fagorren Zuzendari Komertziala) izan ziren. Jardunaldian zehar berrikuntza, digitalizazio, kultura, dibertsifikazio, kalitate, produkzio eta eredu berrientzako ekimen aipagarrienak partekatu zituzten, COVID-19ak eragindako krisialditik indartsuago irteteko asmoarekin garatutakoak. Ekitaldia Joxe Mari Aizega Basque Culinary Centerreko presidentea aurkeztu zuen, eta BCC Innovationeko zuzendari den Begoña Rodríguez gidaritzapean garatu zen.

Galdera berriei erantzunez

Webinar honen ildo nagusia elikagaien sektorearen balio katearen eraldaketa izan zen, gaur egungo egoerara egokitzuz. COVID-19 gaitzak eragindako krisialdi egoeratik eratorritako errealitate berriak industria zein kontsumitzaileen ekoizpen eta kontsumo moduen eraldaketa suposatuko du. Testuinguru honetan modu jasangarrian berriro ahal izatea oso garrantzitsua izango da erronka hauek nekazaritza elikagaien industriara aplikaturiko aukera bilakatzeko, sektore hau eraldaketa sozioekonomikoaren motoreetako bat izango delarik.



Personajes ilustres del sector gastronómico en el webinar.

Krisialdiari aurre egiteko irtenbide berriak

CREATING FOR HUMANITY MONDRAGON TEAM ACADEMYK SUSTATUTAKO AKZIORAKO DEI MASIBO BAT DA, GIZARTE BERRITZAILEAK OSASUN KRISIALDIAK ERAGINDAKO BEHARRIZANEI AURRE EGITEKO IDEIA, IRTENBIDE EDO START-UP BERRIAK AURKEZTERA ANIMATU NAHI DITUENA



Sormena krisiari erantzuteko eraiki da.

Enpresagintza Fakultatea | Mondragon Team Academy (LEINN) MONDRAGON Korporazioak eta beste-lako enpresa, fundazio eta GKE-k koronabirusari aurre egiteko asmoarekin gazteak mugiarazteko proiektu bat sortu du, Creating for Humanity deiturikoa. COVID-19 pandemiak eragindako krisialdi egoera dela eta zenbait erakunde bultzatzailek, hauen artean Mondragon Team Academy dagoelarik, beraien indarrak batu dituzte gazteriaren dinamizazio masiboa bilatze aldera, hauek krisialdiari aurre egiteko baliagarri izango diren irtenbideak diseinatzen animatuz. Horretarako, interkooperazio klima bat sortu da, MTA-LEINN taldeaz gain Danone, Fundación Telefónica, Ashoka, Bridge for Billions, Ship2B,

MONDRAGON Korporazioa, La Bolsa Social, Fundación 'La Caixa' eta IrsiCaixa bezalako erakundeek parte hartuz. Enpresa, giza erakunde edo ikerketa zentro ezberdinek beraien esperientzia partaideekin partekatu dute, eta hauek proiektuaren iraupenean lagundu. Programaren helburua pandemiari irtenbide berritzaileekin aurre egin ahal izatea da, taldean eta sarean egindako lana oinarri izanda.

Norabide anitzeko plataforma

Creating for Humanity plataformak gazte berritzaileen babeserako sorturiko deialdi ezberdinak bateratu ditu: Ideiak, Irtenbideak eta Start-Up-ak. Horretarako erabili den lelo amankomuna #YouthInCharge izan da, gizarteak behar dituen irtenbi-

deen lidergoa gazteek har dezaten unea iritsi delako

Proiektuari buruzko informazio dena www.creatingforhumanity.org webgunean aurki daiteke, eta familia, eskola gazte berritzaile zein Start-up ezberdinek dute akziorako dei masibo honetan izen emateko aukera.

• Ideiak martxan

9 eta 18 adin tarteko gazteei zuzendua, inguruan dauden errokeni aurre egiteko ikasle talde, eskola zein familiek planteatutako ideiak bateratzeko helburua du.

• Irtenbideak:

Adin nagusiak diren berritzaileek martxan jarritako proiektuentzako deia, nahiz eta hauek pilotu fasean egon.

• Start-Ups

Start-up edo giza enpresa txiki entzako deia, hasi eta lanaren eragin positiboa COVID-19aren aurka biderkatzeko potentziala dutenak dira hemen helburu.

Llamada a la Acción Masiva

Esta es una de las pocas crisis en la humanidad en las que cada persona tiene una misión. Va a haber millones de héroes y heroínas. Y sin ninguna duda vamos a **superar**, pero lo tenemos que hacer **entre todos**.

Creating for humanity es una LLAMADA A LA ACCIÓN a la JUVENTUD para generar ideas, soluciones y start-ups en EQUIPO para los retos del COVID-19.

Plataforma Abierta

Creating for Humanity es una plataforma ABIERTA creada para unir fuerzas y ayudar al rápido crecimiento del bien en el mundo. Queremos mejorar el mundo y el sufrimiento CREANDO START-UPS un nuevo modelo de negocio, de soluciones y respuestas para la humanidad basada en amor y solidaridad.



Tienes/Eres...
¿Entre 9 y 18 años?
¿Eres una familia?
(Una Escuela? Profesional de la educación?)



¿Eres ¿
joven mayor de edad con una solución para los problemas generados por COVID-19 en tu comunidad?



Eres...
...una startup con potencial para escalar y creando un impacto positivo para hacer frente al COVID-19?
...una empresa comprometida con la juventud y crear soluciones para el COVID-19?

Aitanaren lasterketarik luzeena

AITANA RODRIGO INEGNIERIA BIOMEDIKOKO IKASLEA DA, ETA OTSAILEAN ESPAINIAKO TXAPELKETA IRABAZI ZUEN 60 METRO LAUETAN. KORRIKARIK EGIN AHAL IZAN GABE KONFINAMENDUA NOLA BIZI IZAN DUEN KONTATU DIGU.

GoiEskola Politeknikoa | Zernolako ari da izaten normaltasunerako itzulera?? Kontuan izanik konfinamenduaren leuntzea kurtsu bukaerarekin batera etorri dela hau ahalik eta modu onenean bukatzen zentratu naiz. Oraindik ez naiz hasi guztiz normal entrenatzen, eta egia esan unibertsitateko lan eta proiektuak bukatzeko gogoak ditut, horrela nire ohiko errutinara itzuli ahal izateko.

Hala ere suposatzen dut konfinamenduan ere entrenatzen saiatuko zinela.. Bai noski. Etxean pesak, korrika egiteko zinta eta bestelako ariketak egiteko ekipamendua ditu, baina nahiz eta saiatu ez da erraza motibazioa mantentzea. Hilabete ondoren konturatzen zaramuskulatura galtzen ari zarela, ez zaudela hain ondo... desmotibatu eta dena alde batera uzteko arriskua ere badago.

Kasu hauetan dieta orekatu bat mantentzeagarrantzitsua izan ohi da. Dieta egoki bat mantentzea normalean ere asko kostatzen zait, eta etxean hainbeste ordu igarotzean hozkailura gehiagotan jotzen duzu. Zorionez ez naiz erraz gizentzen den pertsona bat.



Aitana Rodrigo entrenamendu saio batean.

Zeintzuk izan dira zure metodoak errutinanezerortzeko? Entrenatzeko unean normalean hainbeste lantzen ez ditudan zonaldeak lantzen saiatu izan naiz, adibidez abdominal, hanka edo orkatiletako ariketa espezifikokoak eginez. Horretaz aparte, irakurketan zentratu naiz eta umeetan jotzen nuen pianoa berreskuratu dut.

Koronabirusak izan al du influentziarik zure urteko planifikazioan? Osasun alarmak neguko denboraldia bukatu berri harrapatu gintuen, urteko sasoirik politena hastear zegoenean. Nire nahia espainiar selekzioarekin kontzentrazio bate gin ahal izatea zen, eta sub23 kategorian Mediterraneoko Jokoetan parte hartu. Espainiar selekzio absolutuarekin izateko aukerak nituen, eta orain honek itxaron behar izango du.

Beraz jada 2021ean pentsatzen? Oraindik ez dago argi 2020an zerbait lehiatuko ote den. 2021a lehiaketa garrantzitsu askoko urtea izango da, eta hauei aurreten atzeratutakoak gehitu beharko zaizkie seguraski, beraz bai, esango nuke burua hein handi batean datorren urtean dudala.

Gastronomia berritzen Venezian

BASQUE CULINARY CENTERREKO BI IKASLEK ETXERA ERAMATEKO LEHEN JANARI ZERBITZUA MARTXAN JARRI DUTE VENEZIAN, OINEZ EDO ITSASONTZINZ GAUZATZEN DENA.



Silviak eta Marcok Veneziako ostalaritza berri dute.

Basque Culinary Center - Gastronomia Zientzien Fakultatea | Silvia Rozas eta Marco Zambon Basque Culinary Centerreko bi ikasle dira, etakoronabirusakeragindako osasun krisialdiak Venezian harrapatu zituen, Gradu Bukaerako Lana eta Master Bukaerako Lana egiten hurrenez hurren. Beraien proiektuak gauzatzen ari ziren bitartean Marcoren familiak kudeatzen duen *Birraria La Corte* jatetxean lanean hasi ziren, eta krisialdiak indarra hartu zuenean berrikuntzarako beharra somatu zuten. Gauzak horrela, beraien apustua jatetxearen betiko zerbitzua eraldatu eta etxerako salmenta formatua aktibatzea izan zen, hiriaren historian zerbitzua hau eskaintzen duen lehenatariko jatetxea bilakatu.

Proposamena aurrera eramateko egungo egoerara egokitutako menu bat sortu zuten, eta ezagutzera emateko erabilitako tresna nagusiak marketing digitala eta 10.000 flyer ingururen inprimatzea izan dira, denboramurriztean beraien eskaintza gastronomikoa ezagutzera emanez.

Lurretik zein itsasotik

Proiektua aurrera eramateko zailtasun nagusienetako bat arlo logistikoa aurkitu zuten, bezeroekin segurtasun distantzia mantendu behar izateaz gain hiriaren beraren egiturak entregak oinez edo itsasontziz egitera behartu zituzten eta. Behin banaketa sare hau eraturik zegoela, Silvia eta Marcok berau gizarteari ekarpen bat egiteko aprobetxatu nahi izan zuten. Modu honetan *Birraria La Corte* jatetxearen sukaldari etekina ateraz SS. Giovanni e Paolo ospitaleko langilegoari banatu zaion menu bat diseinatu zuten, #Food4Heroesekin batera eginez.

Proiektu honek lanerako lerro berriak ireki nahi ditu, Veneziako slowfood ekoizle zein nekazari lokalei garrantzia emanez. Helburu nagusia bigarren zein bosgarren gamako produktuak sortzea da, bizitza erabilgarri luzeago bat izango dutenak, itxita dauden jatetxeen egoera dela eta kontsumitzen ari zirenen produkzioa aprobetxatu ahal izateko. Modu honetan sukaldaritza eta lehen sektorearen arteko elkarlana sustatu nahi da.

Konfinamenduan ere kirol Zerbitzua zure alboan

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO KIROL ZERBITZUTIK, ETXEAN AKTIBO MANTENTZEKO HARTU DITUZUN OHITUREI EUTSI ETA KALEAN ERE JARDUERA FISIKO OSASUNTSU BATEKIN GOZATZEN JARRAITZERA ANIMATZEN ZAITUGU!!



Kirol Zerbitzuak haleginak egin ditu ezaugarri berezietara egokitzeke.

Kirola | Koronabirusak unibertsitatea, enpresa mundua, turismoa eta kirol profesionala gelditu du besteak beste, baina jarduera fisikoarekin ezin izan du. Martxoaren 13tik aurrera, jarduera fisikoak berebiziko garrantzia hartu du adin guztietako biztanleriaren artean eta etxeetako edozein txoko erabilgarri ikusi da, etxean jarrera sedentarioetan egotearen gogortasunak apurtu eta izerdi pixkat ateratzeko.

Egoera honen aurrean, Mondragon Unibertsitateko Kirol Zerbitzuak ere zure alboan egon nahi izan du, etxean aktibo mantentzeko proposamen ezberdinak luzatuz, gure ikasle eta langileek ordenagailu aurreko lan jardunen ondoren, gorputza mugitu eta askatzeko helburuarekin. Hasieran, gaitasun fisiko ezberdinak lantzeko zirkuituak bidaltzen hasi ginen, hala nola, indarra, mugikortasuna edo malgutasuna lantzeko zirkuituak. Konfinamendua luzatu ahala, aste santuetarako entrenamendu planning-a, indar eta luzaketa saioak zuzenean eta korrika egiten hasteko 4 astetako planning-ak (maila ezberdinetara egokitutakoak) ere proposatu ditugu.

Jarduera fisiko proposamenez gain, bestelako aholku edota ekintzak ere burutu ditugu, osasun ohiturak sustatu eta etxean egon beharra arintzeko helburuarekin; ikasle kirolariek solasaldia, kirol arloko ikus-entzunezkoen bilduma, ordenagailu aurrean jarrera egoki batean lan egiteko gomendioak, elikadura edo osasun aholkuak, ... besteak beste.

Baina kontuz ibili behar dugu! Etxean asko mugitu bagara ere, oro har kaleko ekintzekin gehiago motibatzen da gizakia, gorputza limite handiagoetara eramaten du eta ezin da ahaztu ia bi hilabete etxean sartuta egon garela. Denbora honetan gorputzak aldaketak jasan ditu eta berriro aurrez geneukan egoerara bueltatzeko denbora beharko da. Hau honela, deseskalatze honetan eta kirola egiteko gero eta askatasun gehiago dugun garai honetan, aurretik burutzen zenuen intentsitateetan kirola egiten hasi aurretik, progresioan hasia gomendatzen dugu eta posible izanez gero, zure egoera aztertzeke gomendioa luzatzen dizuegu.

Gogoratu gure informazioa www.mondragon.edu/eu/kirol-zerbitzua topatu dezakezula

Inoizko arrakasta lortu du Huhezinema 2020 Online jaialdiak

COVID-19AK SORTUTAKO LARRIALDI EGOERA DELA ETA, ONLINE EGIN DA URTEN HUHEZINEMA EUSKAL FILM LABURREN JAIALDIA. 13. EDIZIOAK, GAINE-RA, INOIZKO JARRAITZAILE KOPURU HANDIENA LORTU DU.



Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea | Koronabirusaren pandemia dela eta, online egin da aurtengo Huhezinema Euskal Film Laburren Jaialdiaren 13. edizioa (www.huhezinema.eus). Oso arrakasta handiarekin egin ere, hala, martxoaren 25, 26 eta 27an online eskainitako jaialdiak 1.500 ikusle baino gehiago bildu ditu.

Aretxabaletako Kultur-etxean beharrez, aurten era birtualean eskainiko dituzte proiektzioak, hitzaldiak eta masterclass-eak. Horretarako, hiru bide prestatu dituzte Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioa graduko 4. mailako ikasle antolatzaileek: Twitch, YouTube eta Instagram. Gainera, Filmin ikus-entzunezko plataformarekin hitzarmean sinatu dute antolatzaileek eta jaialdiak kanal propioa izan du plataforman horretan.

Horrela geratu da *Horror History* izenpean egindako 13. edizioko palmaresa: Sail Ofizialeko Goiena Sariaren irabazlea izan da June Laka, *Kresala* film laburrekin. Mondragon Unibertsitateko Ikasleen Sailaren irabazleak, aldiz, izan dira Ane Miren Nafarrate eta Uxue Botas *Tua* lanarekin Fikzio Onenaren atalean, eta Pablo Anza *Bizilagun* filmarekin, Dokumental Onenaren atalean.

Arizmendarrietaren

TXOKOA

Jose Maria Arizmendarrietaren ondarea, filosofia eta baloreak.
Gogoeta liburuxka.

“Imajinatzen duguna baino zordunagoak gara besteengandik”

(Cooperación aldizkaria, 1962ko maiatza)

Iraila

Goi Eskola Politeknikoa

- ▶ BUSINESS INTELLIGENCE: ANÁLISIS Y VISUALIZACIÓN DE DATOS CON POWER BI. BILBAO

Enpresagintza

- ▶ MÁSTER EN INNOVACIÓN Y GESTIÓN EMPRESARIAL DEPORTIVA - SEPTIEMBRE 2020

Urria

Goi Eskola Politeknikoa

- ▶ MÁSTER EXECUTIVE EN LOGÍSTICA INTEGRAL Y COMPRAS. BILBAO
- ▶ MÁSTER EN FABRICACIÓN ADITIVA INDUSTRIAL. ORDIZIA
- ▶ MÁSTER EN CIBERSEGURIDAD INDUSTRIAL. HERNANI-BILBO INDUSTRIA ZIBERSEGURTASUNEKO MASTERRA. HERNANI-BILBO
- ▶ PROGRAMA PARA LA CERTIFICACIÓN PMP®. BILBAO
- ▶ BUSINESS INTELLIGENCE: APRENDE A CREAR UN CUADRO DE MANDO CON POWER BI. ONLINE
- ▶ DELEGADO DE PROTECCIÓN DE DATOS (DPO). HERNANI

Enpresagintza Fakultatea

- ▶ MBA EXECUTIVE
- ▶ CURSO EXPERTO EN INNOVACIÓN DEPORTIVA
- ▶ MÁSTER UNIVERSITARIO EN DIRECCIÓN CONTABLE Y FINANCIERA
- ▶ MÁSTER UNIVERSITARIO EN MARKETING DIGITAL
- ▶ MÁSTER UNIVERSITARIO EN INTERNACIONALIZACIÓN DE ORGANIZACIONES
- ▶ MÁSTER UNIVERSITARIO EN GESTIÓN ESTRATÉGICA DEL TALENTO DE PERSONAS - MTALENT

Azaroa

Goi Eskola Politeknikoa

- ▶ EXPERTO EN LOGÍSTICA INTEGRAL. BILBAO

Enpresagintza Fakultatea

- ▶ MÁSTER EN COACHING DE PERSONAS Y EQUIPOS (MÓDULO II - CAPACITACIÓN BÁSICA EN COACHING

GRADOS

www.mondragon.edu/eu/ikasketak/graduak

MÁSTERES UNIVERSITARIOS

www.mondragon.edu/eu/ikasketak/unibertsitate-masterrak

FORMACION PARA PROFESIONALES

www.mondragon.edu/eu/ikasketak/unibertsitate-masterrak

OTROS

BIZUMekin

ordaintzen baduzu,
FLOWa duzu

Lagunen arteko opari bat, taxi bat, sarrera batzuk...

LK Payrekin dirua bidali eta jaso dezakezu doan, mugikorretik mugikorrera, zure kontaktuen artean. Erraz, azkar eta seguru. Hau da, FLOW handiarekin.

Deskargatu LK Pay appa, Bizum aktibatzeko:



LK Pay



bizum




LABORAL
kutxa